



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO
PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 1. orrialdea

EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "**IBARRAKO PIPARRAK**" MARKAREN ARAUDIA.

BERRIKUSPENEN KONTROL-ORRIA

BER R.	BERRIKUSITAKO ATALA	ORRIA	BERRIKUSP EN DATA
1	Artikuluen birzenbakitzea 9 bis-etik aurrera. Beste bi baldintza gehitu dira 13. artikuluan.		30/06/04



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 3. orrialdea

I. ATALBURUA -OROKORTASUNAK.

Eusko Label bereizgarriak "Ibarrako Piparrak" markari ematen dion kalitate ziurtagiria eskuratzeko nahitaezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztutako piparrak izatea eta Araudi honetako baldintzak betetzea. Aipatu bereizgarria euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo da. Hori dela eta, beste jatorri bateko piparrek ezingo dute Eusko Label bereizgarria izan, eta arrazoi beragatik ezingo dira erabili antzekotasun fonetiko edo grafikoa dela medio araudi honek babesten duen zigiluarekin nahas daitezkeen izen, esaera, marka edo bereizgarriak.

2. artikulua.- Kalitatea Fundazioaren betebeharra izango da Eusko Label bereizgarria babestea, araudia aplikatzea, araudi hori betetzen dela ziurtatzea eta produktuaren kalitatea sustatu eta kontrolatzea.

II. ATALBURUA- PRODUKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK.

3. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria eramateko honako ezaugarriak bete behar dituzte piparrak: "Ibarrako Piparrak" ekotipoko sailetan landatutako Pipermen Horiak izatea, Araudi honek eskatzen dituen ezaugarriak betetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizti eta ontziratutako izatea.

Fundazioak Eusko Labela eraman dezaketen sailak baimenduko ditu kanpaina bakoitzerako.

4. artikulua.- Piperminak aukeratu eta bere garaietan jaso behar dira, eta ozpinetan ondutako kontserba ontziratutako gisa merkaturatu, araudi honetan ezarritako baldintzen arabera.

5. Artikulua.- Ontziratutako piperminak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Barazki mehar eta luzexka da, koska-gabea eta sendoa, zilindro itxura du eta mamiaren trinkotasuna barietate horren ohikoa da.
- Koloreari dagokionez, berde-horixka izaten du, distira arin bat eta kolorazio berdina.
- Punta zorrotza du eta zertxobait kurbatua.
- Txortena osoa, mehea eta luzea.
- Azala fina eta osoa.
- Ukitu goxoa izatea.
- Itxura freskoa eta zimurrik gabea.
- Jateko den aldearen luzera 5 eta 12 cm. artekoa.
- Osasuntsuak izan behar dute, eta ez dute izango ez usain eta zapore arrarorik, ez hotzak eragindako kalterik, ez ablazio, eraso, pitzadura, gaixotasun edo usteldurarik, ez orban arrerik, mamiaren aldaketarik eta substantzia arrarorik, ez hotzak eta kazkabarrak eragindako zauririk eta zimurtasunak, ez itxi gabeko zauri eta eguzkiak eragindako erredurarik.
- Ontzi bereko produktuek tamaina homogenea izango dute. Piperminen luzerari dagokionez, ontzi bereko piperminak 3 cm-ko aldea izan dezakete gehienez ere.

Kalitatearen parametro horiek betetzen ez dituzten ontzi bereko piperminen kasuan, %5eko tolerantzia onartzen da, luzerari dagokionean izan ezik. Luzeraren kasuan, eta lehen aipatu



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 4. orrialdea

tolerantzia ehunekoaz gain, aipatu neurri-koten gaintetik edo azpitik dauden piperminen %10 onartuko dira gehienez ere.

6.Artikulua.- Ontziratutako produktuak izango duen likido estalgarriak honako ezaugarri hauek bermatu behar ditu:

- Likido estalgarriaren osagai nagusia ardo jatorriko ozpin diluitua izango da.
- Aipatu likidoaren PHa 3,3 eta 3,6 artekoa izango da.
- Gehienez ere litroko 10 gr. gatz izango ditu.

Likido estalgarria ardo jatorriko ozpina denez, eta beraz, ozpinetan ondutako elikagaia denez, honakoa kontuan hartu behar da:

- Azukre-kontzentrazioa, Brix graduetan neurtuta, 3,5 eta 4,5 artekoa izango da.
- Ontzien barnealdea garbia egongo da piparrak ontziratatu baino lehen eta likido estalgarriak ez du izango produktuak berezkoa ez duen hondakin solido arrarorik, lurrik edo zikinkeriarik.
- Ontzia hermetikoki itxita egongo da merkaturatu ahal izateko.

III. ATALBURUA EKOIZPEN ETA ONTZIRATZE GUNEA MUGATZEA.

7. Artikulua.- Piperminak Euskal Autonomia Erkidegoko alde atlantikoan ekoitziak izango dira, 585 mm.ko edo hortik gorako Benetako Ebapotranspirazio bidez (Thorntwaite), eta neguko batez besteko gutxieneko tenperaturak (ez dira baxuegiak izango) eta udako gehienezkoak (ez dira altuegiak izango) kalitatezko piperminaren garapenerako egokia izango den klimari dagozkionak izango dira.

Era berean, laboreentzako ingurune klimatikoa egokiena izate aldera, horiek ez dira landatuko itsas mailatik 450 metro baino gehiagoko garaieran.

8. artikulua.-Produktua Euskal Autonomia Erkidegoko esparru geografikoan ontziratuko da.

IV. ATALBURUA. PRODUKTUA EKOITZI ETA BILTZEA.

9.1. Artikulua.- Produktuaren garapen eta fruktifikazio egokia ahalbidetuko duten teknikak erabiliko dira ekoizpenean, eta gainera, labore nahiz prozesuak arduraz zainduko dira. Laborantzan edo produktuaren bilketan ezingo da erabili indarrean dagoen araudia hautsi edo produktuaren kalitatea kaltetzen duen sistematik (erabakitako irizpideei jarraiki).

2.- Produktuaren kalitate-ezaugarriak gorde eta dituen bereizgarri genotipikoak hondatu ez daitezen (gurutzatzeak, eta abar. Hobekuntzak piperminen aukeraketa genetikoan), Kalitatea Fundazioak eskumena izango du mugak ezartzeko Label bereizgarriarekin erregistratu nahi diren labore motei dagokienean.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 5. orrialdea

3.- Erregistratutako ustategietako pipermin sailetan ezingo da inolako produktu fitosanitariorik erabili modu sistematikoan. Ezinbesteko kasuetan bakarrik, produktuaren kalitatea kaltetzeko arrisku handia dagoenean alegia, eta aurrez jakinarazita, tratamendu fitosanitarioak egin ahal izango dira Fundazioak onartutako produktuak erabiliz.

Tratamenduren bat egitea erabakiz gero, arazoaren konponbideari ondo egokitzen zaiona aukeratuko da, ingurumena errespetatzen duten produktuak eta azkar ezabatzen direnak aukeratuko dira. Kasu horietan, tratamenduan erabilitako produktuak ezabatu ondoren egingo da bilketa.

Fundazioak kanpaina hasieran erabakiko du baimendutako tratamenduen zerrenda.

10. artikulua.- Erregistratutako ustategiek Kalitatea Fundazioak baimendutako bariatateak bakarrik landatu ahalko dituzte.

11. artikulua.- Produktua bere garapen puntu onenean dagoenean bilduko da, eta kontu handiz gainera, barazkiari inolako kalterik ez egiteko.

Kalitatea Fundazioak erabaki ahal izango dituen ezohiko kanpainetan izan ezik, ekaina eta urria artean (biak barne hartuta) bildutako piperminak bakarrik eraman ahal izango dute Eusko Label bereizgarria.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 6. orrialdea

V. ATALBURUA.- ONTZIRATZEA ETA ETIKETAK JARTZEA.

12. Artikulua.- Produktua kontsumitzaileentzako azken salmenta-unitateetan ontziratua aurkeztuko da. Ontzi bakoitzeko edukia antzekoa izango da barietate, neurri eta koloreari dagokienez. Ontziak ez du inolako lur-hondakinik izango, ez hosto ihartuen hondakinik ez beste gai arrarorik. Era berean, ontziratutako produktua hermetikoki itxita egongo da.

Ontzia piparrak erraz ikusteko modukoa izango da, eta aldi berean, era egokian babestuko ditu.

13. Artikulua.- Ontziari ez zaio etiketarik jarriko produktua ontziratuta eta 20 egun igaro arte, eta betiere, produktuak nahiz ontziak berak Araudi honetan ezarritako ezaugarriak betetzen dituela egiaztatu baino lehen. Gainera, produktua aurkezteko modua aldatu ahal izango du kanpaina batetik bestera merkaturatze-interesaren arabera.

14. artikulua.- Indarrean dagoen legediak diotenaren kalterik gabe, Eusko Labeldun piperminen gutxieneko iraupen-data 2 urtekoa izango da gehienez ere, produktua ontziratuta izan zen datatik kontatzen hasita.

15. artikulua.- Erregistratutako ontziratze-zentroek Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitzi eta Eusko Labelen erregistratutako ustategietan ekoitziak izan diren piperminak bakarrik eskuztatu, ontziratuta eta/edo merkaturatutako dituzte.

16. Artikulua.- Fundazioako organo eskumendunak etiketak, diseinuak eta ontziak onartuko ditu horiek erabiltzen hasi baino lehen, eta egokia bada, erabiliko den ontzi motaren definizio partziala edo erabatekoa egingo du, eta baita horien kolore nahiz ontzi bakoitzaren banaketa eta salmenta egiteko erakusmahai edo kaxena ere.

Era berean, produktua aurkezteko modua aldatu ahal izango du kanpaina batetik bestera, merkaturatze-interesaren arabera.

Kalitatea Fundazioak Eusko Label bereizgarria duten etiketa eta ontziak kontrolatuko ditu erabilera egokia dela ziurtatzeko, imitaziorik ez dela ekoizten egiaztatze eta etiketan idatzitakoak edo produktua aurkezteko moduak Eusko Label bereizgarriaren izen ona eta dituen helburuak ez dituela kalteztu ziurtatzeko.

VI. ATALBURUA. KALITATEA KONTROLATZEA.

17.1 Artikulua.- Fundazioak beharrezko kontrol-sistemak ezarriko ditu produktuaren prozesu katean, ekoizpen-, kontserbazio- eta biltegiatze-prozesuetan, garraioan, ontziratze- eta eskuztatze-prozesuetan eta merkaturatze-prozesuan; horrekin guztiarekin Eusko Labelen bereizgarria duten produktuek Araudi honetan ezarritako baldintzak eta aplikaziozkoak diren gainontzeko arauak betetzen dituztela ziurtatuko da.

2.- Produktuaren trazabilitatearen eta kalitatearen hasierako kontrola erregistratutako ekoizle eta ontziratzaileen esku egongo da. Horiek Fundazioak onartutako sistema eragile eta



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 7. orrialdea

kontrol sistema egokiak ezarriko dituzte beren lan-prozesuetan, araudi honek erabakitakoa betetzeko.

18. artikulua.- Eusko Label bereizgarriaren erregistroetan izena eman duten guztiak ikuskatzaile eskumendunen kontrolak onartu beharko dituzte, kontrol horien exekuzioan parte hartuko dute eta ekoizpen, eskuztatze edo merkaturatzeari buruz eskatzen zaizkien datu eta dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte.

19. Artikulua.- Produktuaren prozesu-katea (ekoizpena, ontziratzea, merkaturatzea eta gainontzeko jarduerak) kontrolatu eta gainbegiratzeko eta ondoren prozesu-kate hori aztertu nahiz ziurtatzeko, enpresen edo teknikari espezializatuen zerbitzuak kontratatu ahal izango dira eta egoki irizitako kontrol-sistema ezarri ahal izango da.

VIII. ATALBURUA ERREGISTROAK.

20. artikulua. Kalitatea Fundazioak edo organo eskuordetuak honako erregistroak izango ditu:

- a) Kalitatearen Eusko Labela duten Ibarra Piparraren Ekoizleen erregistroa.
- b) Eusko Labeldun piparra ekoitzi, aukeratu eta ontziratze onartutako ekoizpen- eta ontziratze-entitateen erregistroa.

VIII. ATALBURUA. NEURRI ZUZENTZAILEAK

17. Artikulua.- Erregistratutako erabiltzaileek Araudia hautsiko balute, Fundazioak zigorra ezartzeko eskumena izango du, eta beraz, abisuak bidali edo marka erabiltzeko baimena aldi baterako edo behin betirako kentzea erabaki dezake.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 8. orrialdea

Auto-kontrol arauak

1. Ekoizpen-entitateei dagokienez:

- Ekoizle-entitate bakoitzak egunean izango ditu ekoizle kideen eta horien lurzatieen, barietateen, laborantza-sistemen, ekoizpen aurreikuspenen, tratamenduen eta beste datu interesgarri batzuen erregistroa.
- Aipatu Entitateek ekoizle-kideen zerrenda bat aurkeztuko dute kanpaina bakoitzaren hasieran, eta gutxienez honako datuak izango ditu:
 - Ekoizlearen izen-abizenak, helbidea, udalerrria, telefonoa, eta abar.
 - Piparra ekoizteko erabiltzen den azalera ekoizpen-sistemaren, landutako errenkadaren eta aurreikusitako ekoizpen-bolumenaren arabera.
 - Ontziratze-lekua.
- Informazio hori egokia dela egiaztatu beharko du ekoizle-entitate bakoitzak.
- Entitate edo ekoizle bakoitzak egunean izango du jasotako ekoizpenaren bolumena, eta datu hori Fundazioari jakinaraziko zaio azken honek horrela eskatutakoan. Honako informazioa aurkeztu beharko du gutxienez: izen-abizenak, pipar-ekoizpena egunean, astean edo gutxienez hilabetean, ontziratze-lekua, egindako tratamenduak eta interesgarriak irizitako beste datu batzuk.

2.- Ontziratze-zentroei dagokienez:

- Ontziratze-zentroek erregistro-liburu bat izango dute, eta bertan idatziko da partida bakoitzaren identifikazioa: ekoizlea, data eta emandako kopurua, data eta Eusko Labelarekin ontziratutako kopurua, erabilitako etiketa kopurua, ontzi-mota eta produktuaren trazabilitatea bermatzekoa beharrezkotzat jotzen diren hainbat datu.



EUSKO LABEL BEREIZGARRIDUN "IBARRAKO PIPARRRAK" MARKAREN ARAUDIA



9etatik 9. orrialdea

BESTE DOKUMENTU BATZUK

URTEAN BEHINGO EDO ALDIZKAKO JAKINARAZPENAK

Araudiak eta Eusko Labeldun "Ibarrako Piparrak" markaren kontratuak diotenari jarraiki, honako erabakiak jakinaraziko dira urtero:

1. Baimendutako barietateak.
2. Baimendutako tratamenduak.
3. Ontziak eta etiketak (formatuak eta diseinua)
4. Ordaindu beharreko kuotak. Erregularizazioa
5. Arau-hausteen tipifikazioa.